

**2014ko URTARRILAREN 14ko UDALBATZARRA**  
**PLENO DE 14 DE ENERO DE 2014**

**BERTARATUAK / ASISTEN:**

**ALKATEA / ALCALDESA: M<sup>a</sup> SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI.**

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:**

**JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL (2. puntuan), GARAZI TABERNA TELLECHEA (5. puntuan), JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**KONTUHARTZAILEA / INTERVENTORA: M<sup>a</sup> DOLORES OYARZABAL ZUBIETA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

Inor ez.

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**

**Eguna: 2014-01-14**

**Ordua: 19:40**

**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 14-01-2014

Hora: 19:40

Tipo sesión: ordinaria, 1<sup>a</sup> convocatoria.

**TRATATZEKO GAIK:**

**ASUNTOS A TRATAR:**

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-**

**2013.eko azaroaren 12an egindako bilaren akta ikusirik ONARTU DUTE bertaratu diren zinegotzi guztien aldeko botoa emanda Juan Losa Ocariz ezik aurkako botoa eman baitu.**

Vista el acta de las sesión celebrada el día 12 de noviembre SE APRUEBA con el voto favorable de todos los y las concejales presentes salvo Juan Losa Ocariz que vota en contra.

**2013.eko abenduaren 18an egindako bilaren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

Vista el acta de las sesión celebrada el día 18 de diciembre de 2013, por unanimidad, SE APRUEBA.

*Nekane Perez Irazabal zinegotzia 2. puntua azaltzen ari denean bertaratu da.*

*La concejal Nekane Perez Irazabal se incorpora durante la explicación del segundo punto.*

**2.- 2014. urteko AURREKONTU OROKORRA ONESTEIA.**

**2.- APROBACIÓN PRESUPUESTO GENERAL 2014.**

*Kontuhartzaileak aurrekontua azaldu du, bereziki, aurten dauden aldagetak azpimarratuz eta indarrean dagoen legeria betetzen duela dio.*

*La Interventora explica el presupuesto, especialmente, las modificaciones más importantes para este año y señala que se cumple la normativa vigente.*

*Horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

*Tras ello, por unanimidad adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, 2014.eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren proiektua, non Udal Aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolarena sartzen baitira.**

Visto el proyecto del Presupuesto General para el ejercicio de 2014, en el que se incluyen el Presupuesto del Ayuntamiento y el de la Escuela de Música "Isidoro Fagoaga".

**Ikusirik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201.4 artikuluari jarraikiz Kontuhartzaitzak eta Idazkari-tzak egindako txostenak.**

Vistos informes de Intervención y Secretaría emitidos en cumplimiento de lo establecido en el artículo 201.4 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.

**ERABAKI DUTE:**

**SE ACUERDA:**

**1) 2014.eko Aurrekontu Orokorra, arestian aipatutakoa, hasiera batez onestea.**

1) Aprobar inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio de 2014, antes indicado.

**2) Aipatu Aurrekontua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**

2) Exponer dicho Presupuesto en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos y vecinas o interesados e interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

**3) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamaziorik ez balego, aurrekontua behinbetikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.**

3) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública señalado en el punto anterior.

*Kontuhartzaileak alde egin du.*

*La Interventora se ausenta de la sesión.*

**3.- 2014. urteko MUSIKA ESKOLA ETA UDAL LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA.-**

**3.- PLANTILLA ORGÁNICA PERSONAL MUNICIPAL Y ESCUELA DE MÚSICA AÑO 2014.-**

*Idazkariak 2014ko Udal plantillan dauden aldaketak adierazi eta erabakia azaldu du.*

*La Secretaria explica los cambios en la plantilla orgánica de 2014 y el acuerdo a adoptar.*

*Horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

*Tras lo cual, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, 2014. urterako Udal eta Musika Eskolako Langileen Plantilla Organiko espedientea.**

Visto expediente de la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y de la Escuela de Música para el año 2014.

**Izanik, 18/1986ko abenduaren 15-eko Foru Legearen 15.2 artikulua zera ohartarazten duela:**

Siendo que el artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconcelo indica que "en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vasconcelo y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros".

**"Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".**

**Izanik, 29/2003 Foru Dekretuaren 18.1 artikulua honako hau xedatzen duela:**

Siendo que el artículo 18.1 del Decreto Foral 29/2003 establece que "Las Administraciones Públicas de Navarra, mediante resolución motivada, indicarán en sus respectivas plantillas orgánicas los puestos de trabajo para los que el conocimiento del vasconcelo sea preceptivo para poder acceder a los mismos en función del contenido competencial, de las determinaciones de este Decreto Foral y de la demanda, expresando el grado de dominio que corresponda al contenido de dichos puestos de trabajo."

**"Nafarroako Administrazio Publikoek, e-bazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginen dagokien jakite maila adierazi beharko da."**

**2012ko abenduaren 11n Osoko bilkuran Bortzirietako Euskera Mankomunitateak eginiko txostena, Bortzirietako Toki Entita-**

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 11 de diciembre de 2012 aprobó el informe sobre perfil lingüístico a establecer en los puestos de

**teen plantilla organikoetako lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunei buruzkoa, onartu zuen Udalak.**

**Hori dela eta, aipatu txostena eta horretan adierazi diren arrazoiekin bat etorriz.**

**Lehen aipatutako artikuluei jarraikiz.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) 2014. urterako Eskola Musika eta Udal Langileen Plantilla Organikoa hasiera batez onestea.**

**2) Organismo autonomo eta Udaleko lanpostu guztiak eskuratzeko, nahiz funtzionarioenak zein kontratatuenak, euskara jakitea nahitaezkoa izanen dela xedatzea, Bortziritako Euskera Mankomunitateak eginiko txostenean, lehen aipatutakoan, eta erabaki honetan adierazten den jakite mailaren arabera.**

**3) Aipatu plantilla, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarri Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**

**4) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamazioak ez balego, plantilla behin-betikoz onestzat hartuko dela ohartaraztea.**

**4.- NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAREN ADMINISTRAZIOAREKIKO SALAREN 94/2013 ETA 95/2013 EPAIAK BETETZEKO ERABAKIA, BERAKO UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETARI BURUZKOA, 2. SEKTOREA.**

trabajo de las plantillas orgánicas de las Entidades Locales de Bortziriak realizado por la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak.

Por lo que, teniendo en cuenta el citado informe y según las razones en él aducidas.

De acuerdo con lo establecido en los artículos citados anteriormente.

**SE ACUERDA:**

1) Aprobar inicialmente la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y Escuela de Música para el año 2014.

2) Establecer que para acceder a todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y organismos autónomos, tanto de personal funcionario como de personal contratado, el conocimiento del euskera será preceptivo según se especifica en el informe realizado por la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak, antes reseñado, y en este acuerdo.

3) Exponer dicha plantilla en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos y vecinas o interesados e interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4) Indicar que, si no se formularan reclamaciones, la plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

**4.- ACUERDO EN CUMPLIMIENTO DE LAS SENTENCIAS 94/2013 Y 95/2013 DE LA SALA DE LO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DE NAVARRA SOBRE LA MODIFICACIÓN PORMENORIZADA EN EL SECTOR 2 DEL PLAN MUNICIPAL GENERAL DE BERA.**

*Idazkariak espediente azaldu du eta horren ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:*

*La Secretaria explica el expediente y, tras ello, por unanimidad que representa la mayoría legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Udal Plan Orokorreko 2. Sektorean aldaketa espedientea.**

Visto expediente de modificación del Sector 2 del Plan General Municipal.

**2010eko apirilaren 29an Udalbatzak espediente hau hasiera batez onartu zuen.**

El Ayuntamiento, con fecha 29 de abril de 2010, aprobó inicialmente este expediente.

**Jendaurreko epean zazpi alegazio aurkeztu dute.**

En el plazo de exposición pública se presentaron siete alegaciones.

**2011ko apirilaren 19an burututako osoko bilkuran aldaketa honi eginiko alegazioei erantzuna eman zitzaion Udala.**

En sesión celebrada el 19 de abril de 2011 el Ayuntamiento dio respuesta a dichas alegaciones.

**2011ko maiatzaren 19an aldaketa hau behin betiko onetsi zuen Udalak osoko bilkuran.**

En sesión celebrada el 19 de mayo de 2011 el Ayuntamiento aprobó definitivamente esta modificación.

**Onespen horren aurka bi Administrazioarekiko errekurtsioan tartekatu zituzten.**

Contra esta aprobación se interpusieron dos recursos contencioso-administrativos.

**Horren ondorioz, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Salak 2 epai eman zituen, 94/2013 eta 95/2013, alegia.**

Consecuencia de ello, la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra emitió las sentencias 94/2013 y 95/2013.

**Epai hauen arabera Udalak eginiko Udal Planaren aldaketa ezin da izan aldaketa xehakaturik egituratzailea baizik.**

Según estas sentencias la modificación del Plan Municipal realizada por el Ayuntamiento no era pormenorizada sino estructurante.

**Hori dela eta, ikusirik Lua arkitektoak eginiko “S2ko araudiaren aldaketa egituratzailea” izeneko dokumentua, 2013ko urrikoa.**

Por todo ello, visto el documento redactado por Lua arkitektoak de octubre de 2013 denominado “Modificación estructurante del Sector 2”.

**Ikusirik, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Salak emandako 94/2013 eta 95/2013 epaiak.**

Vistas las Sentencias 94/2013 y 95/2013 de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra.

**Ikusirik, udal abokatuak horri buruz egini-ko txostena 2013ko azaroaren 6koa.**

**Aipatu epaiak betetzeko eta Sustapen Departamentuko Lurraren Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuko teknikariek eta Udalak eginiko bileraren ondorioz.**

**Aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, ERABAKI DUTE:**

**1) S2ko Udal Planaren aldaketa puntuala hasiera batez onartutzat eta argitaratutzat ematea, bere espedientean dauden txosten guztiekin, dagokion prozedura jarraitu ahal izateko, hau da, aldaketa egituratzailea 35/2002 Foru Legearen 79. artikulua arabera.**

**2) Sustapen Departamentuan espediente hau izapidetzea, Nafarroako Gobernuaren Ur Baliabideen Sekzioak eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak dagozkien txostenak eman ditzaten edota beharrezkoa den edozein txostena ere, Udalak behin behineko onespena egin baino lehen.**

**3) Horretarako, aipatu den Departamentuari honako dokumentazio hau bidaltzea:**  
**- Lua arkitektoak eginiko "S2ko araudiaren aldaketa egituratzailea" izeneko dokumentua, 2013ko urrikoa.**  
**- Udal abokatuak horri buruz eginiko txostena 2013ko azaroaren 6koa.**  
**- Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Salak emandako 94/2013 eta 95/2013 epaiak (1. eranskina).**  
**- Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak S2ko aldaketa xehakatuaren prozeduran eginiko txostena, 2011ko abuztuaren 24koa (2. eranskina).**

***Garazi Taberna Tellechea zinegotzia 5. puntua azaltzen ari denean bertaratu da.***

Visto el informe emitido al respecto por el letrado municipal de 6 de noviembre de 2013.

En cumplimiento de las citadas sentencias y en relación con la reunión mantenida por el Ayuntamiento con personal técnico del Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Departamento de Fomento.

Por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, SE ACUERDA:

1) Tener por aprobada inicialmente y publicada la modificación puntual del Plan Municipal del S2 con todos los informes que obran en el expediente para seguir el procedimiento correspondiente a su tramitación como modificación de carácter estructurante según el artículo 79 de la Ley Foral 35/2002.

2) Tramitar ante el Departamento de Fomento este expediente para informe de la Sección de Recursos Hídricos y Dirección General de Obras Públicas del Gobierno de Navarra o cualquier otro informe que se considere necesario, antes de la aprobación provisional por el Ayuntamiento.

3) Para ello, remitir la siguiente documentación al Departamento citado:

- Documento redactado por Lua arkitektoak, denominado "Modificación estructurante del sector 2" de octubre de 2013.
- Informe del letrado municipal emitido al respecto de fecha 6 de noviembre de 2013.
- Sentencias 94/2013 y 95/2013 de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra (Anexo 1).
- Informe emitido por el Departamento de Fomento y Vivienda en el procedimiento de la modificación pormenorizada del S2, de 24 de agosto de 2011 (Anexo 2).

*La concejal Garazi Taberna Tellechea se incorpora durante la explicación del punto 5º.*

**5.- INFORMAZIOA TARTEKATZEKO ETA ELKARLAN ADMINISRATIBOA EGITEKO FEMP ETA TRAFIKOKO BURUTZA NAGUSIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXIKITZEA.**

*Idazkariak gaia azaldu eta lankidetzahitzarmena honen laburpena irakurri du.*

*Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute.*

**Ikusirik, Informazioa tartekatzeko eta elkarlan administratiboa egiteko FEMP eta Trafikoko Burutza Nagusiaren arteko lankidetzahitzarmena.**

**Hitzarmen honekin Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren tributu-kudeaketa hobetuko da eta Berako hiritarrek Trafikoko Burutza Probintzian egin behar duten helbide aldaketa, ere, erraztuko zaie.**

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

**1) Informazioa tartekatzeko eta elkarlan administratiboa egiteko FEMP eta Trafikoko Burutza Nagusiaren arteko lankidetzahitzarmenari atxikitzea.**

**2) Erabaki honen berri Nafarroako Trafikoko Burutza Probintzialari ematea.**

**6.- NAFARROAKO UDALERRI EUSKALDUNETAKO LIBURUTEGI ETA OSASUN ETXEETAN HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO ESKAERA.**

*Jon Abril Olaetxea zinegotziak mozioaren*

**5.- ADHESIÓN AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA FEMP Y LA JEFAURA CENTRAL DE TRÁFICO PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN Y LA MUTUA COLABORACIÓN ADMINISTRATIVA.**

*La Secretaria explica el asunto y lee un resumen del convenio de colaboración.*

*Después, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto el convenio de colaboración entre la FEMP y la Jefatura Central de Tráfico para el intercambio de información y la mutua colaboración administrativa.

Con este convenio se mejorará la gestión tributaria del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica y se facilitará a los vecinos y vecinas de Bera el cambio de dirección que se debe de realizar en la Jefatura Provincial de Tráfico.

Por lo que, SE ACUERDA:

1) Adherirse al convenio de colaboración entre la FEMP y la Jefatura Central de Tráfico para el intercambio de información y la mutua colaboración administrativa.

2) Dar traslado de este acuerdo a la Jefatura Provincial de Tráfico de Navarra.

**6.- SOLICITUD PARA QUE SE GARANTICEN LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS DE LAS PERSONAS EN LOS CENTROS DE SALUD Y BIBLIOTECAS DE LOS AYUNTAMIENTOS EUSKALDUNES DE NAVARRA.**

*El concejal Jon Abril Olaetxea explica el*

*edukia azaldu du eta, ondotik, aho batez contenido de la moción, tras lo cual, la onartu dute honako testua izanik: aprueban siendo el texto el siguiente:*

Legeak herritarrei administrazio publikoarekin euskaraz aritzeko eskubidea aitortzen badie ere, Nafarroako udalerrri euskaldunetako osasun etxe eta liburutegietan ez da euskarazko zerbitzurik bermatzen. Errealitate horrek, herritarren hizkuntza eskubideak urratzeaz gain, euskararen normalizazioa kaltetzen du.

Legeari erreparatzen badiogu, Foru hobekuntza, 13/1982 lege organikoaren 9. artikulua dio euskara ofiziala izango dela Nafarroako zonalde euskaldunetan. Eta Nafarroako 18/1986 Euskararen lege Foralaren 6. Artikulua herritarrei administrazio publikoekin harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen zaiela dio.

Gure udalerria UEMAn sartuta dago, eta gure herritarren % 70etik gora euskaldunak dira. UEMAn eta gure Udalaren helburu nagusietako bat da gure herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea. Tartean sartzen da osasun-zerbitzua eta liburutegietako zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

Gune horietan zerbitzu euskalduna bermatuz urrutik gaude oraindik, izan ere, oraindik oztopo asko ditugu euskaraz artatuak izateko.

Eremu Euskalduneko liburuzainei dagokionez, adibidez, liburuzainek ez dute profil elebiduna Plantilla Organikoan, ez dago inolako planik Nafarroako Gobernuaren aldetik dagoeneko lanpostu finkoa duten liburuzainak euskalduntzeko, ez da aurreikusten, ezta ere, elebidunak diren liburuzainen ordezkotik langile elebidunak egotea.

Osasun-zerbitzuari erreparatuz gero, eremu euskalduneko Osasun Etxeetako lanpostuen hizkuntza perfilek ez dituzte bermatzen euskaldunen hizkuntza eskubideak, eskatutako euskara mailak ez du ziurtatzen euskararen gaitasuna eta lanpostu elebidunen ordezkotik egiterakoan jarraitzen diren irizpideak ez du ziurtatzen langile elebiduna ezarriko dela, besteak beste.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren “Euskararen telefonoa” zerbitzuan asko izan dira hizkuntza eskubideak urratzeagatik herritarrek jarritako kexa eta erreklamazioak. Aipatzekoa da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren txostenetan Behatokia erreferente zuzena izaten dela, eta bere urteroko txostenean Behatokiak jasotzen dituen salaketak txertatzen dituela. 2010ean, Nafarroako Arartekoak elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideen egoerari buruz argitaratu zuen txostenean, Nafarroako Gobernuari hainbat gomendio eta iradokizun egiten dizkio; besteak beste, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua goitik behera berraztertzea.

UEMAk bere aldetik hainbat bilera egin ditu egoerari konponbidea eman nahian, egoeraren diagnosis egin eta eskakizun zehatzak eginez. Baina oraindik ez du erantzunik jaso.

Hori horrela, azaroaren 19an UEMAk, OEEK, eta ASNABIk Osasunbidean eta liburutegietan euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko Nafarroako Parlamentuari aurkeztutako eskakizunak kontuan har ditzala eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eman beharreko pausuak eman ditzala eskatzen dio Berako Udalak.



## **Honakoak izan ziren egindako eskariak:**

### **Osasunbideari:**

- Eremu Euskalduneko Osasun etxeetako eskakizun elebiduna ez duten lanpostuei eskakizun elebiduna jartzea. Lehentasunez pediatria, mediku eta jendaurrean lan egiten duten langileei.
- Eremu Euskalduneko emakumeen Arretarako Zentroetako lanpostuei plantilla organikoan eskakizun elebiduna jartzea.
- V1 jakite maila eskasa dela ikusirik, lanpostu horietan V3 jakite maila eskatzea.
- Euskarazko plazen ordezkoeetan langile elebidunak egon daitezela bermatzea.
- Gainerako arloetan, urratsak ematen hasia: paisaia linguistikoa, informazio-orriak, mamografiako zitazioak, mamografiako txostenak, erradiografia zerbitzuko inkestak, hitzorduak jartzeko SMS-mezuak, baja-agiriak...
- Urgentziazko Zerbitzuetako langileen hizkuntz perfilak zehaztea.

### **Kultura Sailari:**

- Eremu Euskalduneko profil elebiduna ez duten liburuzainen lanpostuei profil elebiduna jartzea.
- Profil hori C1 mailakoa izatea.
- Dagoeneko lanpostu finkoa duten liburuzainen kasuan, horiendako euskalduntze plan bat diseinatzea.
- Eremu Mistoko zenbait lanposturi profil elebiduna paratzea; batez ere liburuzain bat baino gehiago dauden liburutegietan.
- Plaza elebidunen ordezkoeetan langile elebidunak egon daitezela bermatzea.
- Liburuzain guztiei, oro har, euskara ikasteko erraztasunak ematea.
- Nafarroako Gobernuak Liburutegien Sareko udalekin eginak dauzkan hitzarmenetan hizkuntzaren erabilerari buruzko irizpideak ezartzea: liburu eta materialak hornitzea, paisaia linguistikoa, informazio-orriak, aplikazio informatikoa...

Horiek horrela, Berako Udalak mozio hau onartzen du:

- 1.- UEMAK Nafarroako Parlamentuari egindako eskaerak bere egitea.
- 2.- Gure udalerrian herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko urratsak emateko plangintza eta epeak zehaztea.

3.- Eskaera horiek Nafarroako Parlamentuari, Kultura saileko presidenteari eta Osasun saileko presidenteari bidaltzea. Parlamentuari bi arlotako eskaerak eta Kultura eta Osasun sailari bakoitzari dagozkionak.

## **7.- PENTSIO SISTEMAREN ALDAKETA-RI BURUZKO MOZIOA.**

*Isidora Aguirre Ubiria zinegotziak mozioa irakurri du eta, aho batez, onartu dute honako testua izanik:*

- 1. Berako Udalak Segurtasun Sozialaren Iraunkortasun Faktorea eta Balia Handitzeko indizea arautzeko lege Egitasmoa arbuiatzen du, erretiratu eta pentsioei beren erosahalmena murriztea suposatuko zaielako eta oraingo zergadunak eta geroko erretiratuak pentsio lotsagarriak jasotzera zigortuko direlako.**
- 2. Berako Udalak Estatuko Gobernuari eskatu dio LORAFNA legean bere 54. artikuluan ezarritakoa betetzea, Segurtasun Sozialaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa Nafarroako Erkidegoaren ardurapean jarriz .**

### **Justifikazioa**

**Garrantzi handiko gaia izanik eta gizarte prestazioen Iraunkortasuna eztabaidan dagoen gaia delarik, Espainiar Gobernuak Lege egitasmoarekin egin duen ekimen honek gastua baino ez du jorratzen. Lege egitasmoak gastua 33 milioitan murriztea bilatzen du, erreforma hau aplikatzen den bitartean pentsioek sufrituko duten murrizketaren kopurua, hain zuzen .**

**Alde batetik ezarri da balioa handitzeko faktoreak erretiratuen eros -ahalmena etengabe galtzea ekarriko du. Faktore hori da balioa handitzea KPItik banatzen dela, % 0,25ko zorua mantenduz, hau da, eufemismoa erabiliz pentsioen igoera deitzen**

## **7.- MOCIÓN SOBRE LA REFORMA DE LAS PENSIONES.**

*La concejal Isidora Aguirre Ubiria lee la moción y, por unanimidad, la aprueba siendo el texto el siguiente:*

1. El Ayuntamiento de Bera rechaza el Proyecto de Ley reguladora del Factor de Sostenibilidad y del Índice de revalorización del Sistema de Pensiones de la Seguridad Social, por entenderlo como un ataque al colectivo de jubilados y pensionistas menguar su capacidad adquisitiva y sentenciar a los contribuyentes actuales, y futuros jubilados, a pensiones indignas.
2. El Ayuntamiento de Bera insta al Gobierno del Estado a cumplir lo establecido en la LORAFNA en su artículo 54, transfiriendo la gestión del régimen económico de la Seguridad Social.

### **Justificación**

Siendo una cuestión de gran importancia y un debate abierto el de la Sostenibilidad de las prestaciones sociales en su conjunto, el abordaje que el Gobierno Español ha realizado con este proyecto de Ley se centra exclusivamente en el gasto. El Proyecto de Ley busca la disminución del gasto por una cuantía de 33mil millones de euros que equivale exactamente al recorte que van a sufrir las pensiones mientras dure la aplicación de esta reforma.

Por un lado, se establece el factor de revalorización nos llevará a una continuada pérdida de poder adquisitivo por parte de los jubilados. Este factor consiste en desvincular las revalorizaciones del crecimiento del IPC, manteniendo un suelo del 0,25%al que eufemís-

**дутена. Esan beharrik ez dago KPI hori % 0,25etik gorakoa izango dela beti, eta pentsioak 0,25an igoko direla esatean lengoia manipulatu egiten da, eta errealitatean pentsioak 0,25 eta KPIaren artean jaitziko dira. Ezin da igoera aipatu, zalantzarik gabe pentsioaren eros-ahalmena galtzea eragiten denean.**

**Beste alde batetik, belaunaldien arteko solidariotasun faktorea ezartzen da, etorkizuneko pentsioen murrizketa graduala suposatuko duena. Faktore honek etorkizuneko pentsioak pentsiodun guztientzako erreferentzia zehatz batera lotzen ditu, bizi itxaropena hain zuzen. Faktore honen bidez oraingo pentsio sistema desegituratzen da, zeinen bidez pentsioa langile bakoitzak lan egindako urte kopuruaren arabera, lan egindako kotizazio oinarrien arabera, ordutegiz kanpoko lan orduen eta beste inguruabarren arabera ezartzen den. Faktore honen bidez hori dena uniformizatu egiten da pentsioa INE erakundeak ezarritako bizi itxaropenarenari lotuz, eta pentsioen apurketa eraginez, bizi iraupena hazten joango delako eta erretiratu berrientzat geratuko diren pentsioak guztiz alderantzizko proportzioan murriztuz joango direlako.**

**Ezinbestekoa da pentsioen iraunkortasuna sarreraren ikuspuntutik aztertzea. Enplegua sortzeko politikak jarri behar dira martxan, azpiko ekonomiak agerian jarri, jaiotzeak sustatu behar dira..... iraunkortasun hori era integralean jorratu dadin. Horixe da, hain zuzen, Espainiako Gobernuak jorratu ez duen erronka .**

**Seguritate Sozialaren kudeaketa ekonomikoaren eskuduntza aldarrikatzen dugu, LORAFNA legeko 54 artikuluan ezarri-**

ticamente denominan incremento de las pensiones. Es una obviedad afirmar que el IPC siempre será superior al 0,25% y que el denominado incremento de las pensiones del 0,25 solo constituye una manipulación del lenguaje que encubre un decrecimiento real de las pensiones que cada año consistirá entre el 0,25 y el IPC. No se puede hablar de incrementos cuando se provoca una indiscutible pérdida de poder adquisitivo de la pensión.

Por otro, se establece el factor de solidaridad intergeneracional que supondrá una disminución gradual de las pensiones futuras. Este factor, vincula las pensiones futuras a una referencia uniforme para todos los pensionistas cual es las expectativas de vida. Con este factor se desestructura el modelo actual de pensiones, en virtud del cual la pensión desde una perspectiva individualizada se generaba por cada trabajador en función del número de años trabajado, las bases de cotización por las que trabajó, las horas extraordinarias y otras circunstancias, que con este factor se uniformizan vinculando a la pensión a las expectativas de vida que determine el INE provocando igualmente un quebranto de la pensión puesto que las expectativas de vida seguirán creciendo y de forma inversamente proporcional irán reduciendo la pensión de jubilación resultante para los nuevos jubilados.

Es necesario afrontar la sostenibilidad de las pensiones desde la perspectiva del ingreso. Implementar políticas de creación de empleo, afluencia de economías sumergidas, impulso de la natalidad... de forma que la sostenibilidad se aborde de manera integral. Este es el reto que Gobierno Español no afronta.

Reivindicamos la competencia de la gestión económica de la seguridad social, recogida en la LORAFNA, artículo 54 como herramienta nece-

**takoa betez, eta Nafarroan kudeaketa propio eta berezitua egiterik izan dezagun.**

#### **8.- PRESOEN SABANAKETA ETA SEVILLA II ESPETXEKO EGOERAREN AURKAKO MOZIOA.**

*Mozioa irakurri baino lehen Juan Losa Ocariz zinegotziak dio ez zaiola interesatzen mozioa eta alde egin behar duela; ez duela deus ere nahi Bildukoekin aldatzen ez duten bitartean. Segidan, alde egin du.*

*Gero, Garazi Taberna Tellechea zinegotziak mozioa irakurri du.*

*Horren ondotik. aho batez, onartu dute mozioa honako testua izanik:*

#### **ZIOEN AZALPENA**

**Etixerat, euskal preso politikoek senideen elkarte den heinean, behin eta berriz salatu du sakabanaketa politika. Sakabanaketak, euskal presoak euren ingurune sozial, kultural eta afektibotik ehunaka kilometro-etera egoteaz gain, bestelako egoerak erretzen dituen markua osatzen duelako: erasoak, isolamendua eta, espetxeraturik dauden pertsonen eragiteaz gain, guri ere, euren senide eta lagunoi eragiten diguten bestelako eskubideen urraketak.**

**Gure Elkarteak azkeneko bi urteetan espetxetan ematen ari den tentsionamenduaren areagotzea eta espetxeko bizi-baldintzen okertzea salatu du, ETAREN ihardueraren bukaeraren berriarekin kointziditu izan duena. Oso kezagarritzat eta larritzat jotzen dugu egoera hau, bai gure senideei eragiten dien heinean, baita jokoera honek azaleratzen dituen interes politikoengatik.**

**Marku honetan kokatzen dugu Sevilla II-ko espetxeko kasu zehatza, zeinek bertan espetxeratuak dauden gure senideak mugagabeko gose greba batera behartu dituen.**

saria para desarrollar una gestión propia y diferenciada en Navarra.

#### **8.- MOCIÓN CONTRA LA DISPERSIÓN Y LA SITUACIÓN EN LA CARCEL SEVILLA II.**

*Antes de iniciar la lectura de esta moción el concejal Juan Losa Ocariz manifiesta que no le interesa la moción y que se va a ir; no quiere nada con los de Bildu mientras no cambien. Posteriormente, se ausenta de la sala.*

*Seguidamente, la concejal Garazi Taberna Tellechea lee la moción.*

*Tras ello, por unanimidad, la aprueban siendo el texto el siguiente:*

#### **EXPOSICION DE MOTIVOS**

Etixerat, como asociación de familiares de presos políticos vascos, ha denunciado reiteradamente que la política de dispersión no se reduce únicamente a mantener a las y los presos vascos alejados cientos de kilómetros de su entorno social, cultural y afectivo, sino que constituye un marco que facilita las agresiones, el aislamiento y otras vulneraciones de derechos que afectan tanto a las personas encarceladas como a nosotros mismos, sus familiares y allegados.

Nuestra Asociación viene alertando también del aumento del tensionamiento y del empeoramiento de las condiciones de vida en las prisiones en los dos últimos años, coincidiendo con el anuncio del cese de la actividad de ETA. Una situación que consideramos muy grave y doblemente preocupante, tanto por lo que a nuestros familiares y allegados atañe como por los intereses políticos que esta actuación evidencia.

En este marco situamos el caso concreto de la prisión de Sevilla II, que ha obligado a nuestros familiares encarcelados allí a iniciar, el pasado día 28 de octubre, una huelga de hambre

**Gose greba iragan urriaren 28an hasi zuten, 31 egunez luzatu zelarik.**

**Gose greba hau, zein espetxean egiten den beste edozein ulergaitza da, ez bada presoek euren burua behartua ikusi dutelako muturreko egoera batean, non aurre egiten saiatzen ari diren arazoan aurrean bestelako konponbideak erabat agortuak daudenean.**

**Sevilla II-ko espetxeko kasuan, euskal presoek zein beste preso sozial batzuen greba eragin duena, duela lau urtetatik hona luzatzen den tentsionamendu baten ondorioz dator. Egoeraren larritasuna handitzearen harira espetxe zuzendaritzarekin izandako elkarrizketa eta saiakerek, egoera bera luzatzea besterik ez dute lortu, konponbiderako inongo aurreikuspenik gabe.**

**Haien aldarrikapenak eskubide oinarrizkoenetan oinarritzen dira, berezkoak dituzten eskubide batzuk, baldintzetara edo ordaintetara lotu ezinena. Espetxea da hain zuzen ere haien segurtasuna, haien osotasun fisikoa, haien osasuna eta dagozkien eskubideak zaindu behar dituen; beraz, erabateko ardura du eskubideen urraketa jarraiei eta sistematikoei dagokienez.**

**Nahiz eta egungo legerian zein espetxe-arautegian isolamendua oso egoera zehatzetarako gordetzen den neurri bat izan (bai erregimenari dagokionez, zein zigor neurri bezala), eta mugatua izan behar duen, gure senide eta lagunei bizi-erregimen gisa aplikatzen zaie, mugagabeko iraupena duena.**

**Sevillako espetxean gure senideek dagoeneko lau urte daramazkete isolamenduan, inongo iharduererako aukerarik gabe, eta salbuespenezko neurriak biziz. Bi egunetik behin, 26 ordu pasatzen dituzte jarraian**

indefinida, que se prolongó durante 31 días.

No podemos entender ni ésta ni cualquier otra huelga de hambre en prisión, sino como una medida de denuncia extrema que presos y presas se ven obligados a tomar en condiciones también extremas, agotada ya cualquier otra vía de solución a los problemas que enfrentan.

En el caso de la prisión de Sevilla II, la situación que ha originado la huelga de presos vascos e incluso de presos sociales también, registra un tensionamiento que se alarga desde hace ya cuatro años. Los reiterados intentos e incluso las conversaciones habidas con la dirección de la cárcel sobre el continuo agravamiento de la situación, sólo han conseguido prolongarla, sin visos de solución.

Sus reivindicaciones atañen exclusivamente a los derechos humanos más elementales, unos derechos que les son inherentes y no pueden estar sujetos a condicionantes ni a contrapartidas. Es precisamente la prisión quién debe velar por su seguridad, por su integridad física, por su salud y por el respeto de los derechos que les corresponden; tiene por tanto toda la responsabilidad en cuanto a la vulneración continuada y sistemática de estos derechos.

Aunque en la legislación y normativa penitenciarias el aislamiento es una medida reservada a situaciones muy concretas (bien sea regimenterales, bien como medida de castigo y sanción) y de duración limitada, a nuestros familiares y allegados se les aplica como régimen de vida, de duración indefinida.

En la prisión de Sevilla II, nuestros familiares llevan ya cuatro años en aislamiento, sin acceso a ningún tipo de actividad y sometidos a medidas excepcionales. Uno de cada dos días, pasan, además, 26 horas seguidas en la celda.

ziegan.

**Aipatutako guztiagatik, BERAko Udalbatza honi honako HITZARMEN hauekin bat egiteko eskatzen dugu:**

**1.- Espainiako gobernuari sakabanaketa politikaren amaiera eskatzea. Izan ere, sakabanaketak presoak bere ingurune sozial, kultural eta afektibotik milaka kilometrotara urruntzeaz gain, erasoak, isolamendua eta bestelako eskubide urraketak ahalbidetzen ditu. Eskubide urraketak hauek presoek eragiteaz gain, senide eta lagunei ere zuzenean eragiten dietelarik.**

**2.- Sevilla II espetxeko zuzendaritzari eta Espainiako Espetxe Erakundeetako idazkari nagusiari euskal presoek pairatzen dituzten muturreko bizi-baldintzekin amaitzeko eskatzea. Udal honek hitz hartzen du berehala aipatu ditugun organo hauekin telefono bidez harremanetan jarri eta mozio honen berri emateko.**

**3.- Oinarrizko giza eskubideen errespetua defendatzen dugun heinean, bat egiten dugu presoek eta euren senideen eskaerekin:**

- Mugagabeko isolamenduarekin amaitzea.
- Euskal preso politikoak batera egotea.
- Oinarrizko eskubideak errespetatzea.
- Etengabeko jazarpen eta erasoekin amaitzea.

**4.- BERAko Udalak herritarrei mozio honen berri eman eta giza eskubideen eta bakearen defentsan antolatzen diren dinamiketan parte hartzera gonbidatuko ditu.**

**9.- D EREDUAREN KRIMINALIZAZIOAREN SALAKETA.**

*Nekane Perez Irazabal zinegotziak mozioa*

Por todo lo dicho, solicitamos al Pleno del Ayuntamiento de BERA la adopción de los siguientes ACUERDOS:

1.- Pedir al Gobierno español el fin de la política de dispersión, que no se reduce únicamente a mantener a las y los presos vascos alejados cientos de kilómetros de su entorno social, cultural y afectivo, sino que constituye un marco que facilita las agresiones, el aislamiento y otras vulneraciones de derechos que afectan tanto a las personas encarceladas como a sus familiares y allegados.

2.- Pedir tanto a la dirección de la prisión de Sevilla II, como a Instituciones Penitenciarias el cese inmediato de la extrema situación que viven en dicho centro los presos vascos, para lo que este Ayuntamiento se compromete a ponerse en contacto urgentemente con dichas instancias vía telefónica y haciéndoles llegar esta moción.

3.- En favor de promover los derechos humanos más elementales, hacemos propias las reivindicaciones básicas que los propios presos y sus familias exponen:

- Fin del aislamiento indefinido.
- Reagrupamiento de los presos y presas vascas.
- Respeto de los derechos básicos.
- Fin del constante hostigamiento y agresiones.

4.- El Ayuntamiento de BERA pondrá en conocimiento de la ciudadanía el contenido de este acuerdo, y animará a todos y todas las vecinas del municipio a que se impliquen en todas las dinámicas por la paz y el respeto a los derechos humanos.

**9.- DENUNCIA ANTE LA CRIMINALIZACIÓN DEL MODELO D.**

*La concejal Nekane Pérez Irazabal explica la*

*azaldu du eta, aho batez, onartu dute honako testua izanik:* *moción y, por unanimidad, la aprueban siendo el texto el siguiente:*

"Dena da ETA" lelopean edozer eta edonor kriminalizatzeko tradizio sendoa tamalez ez zaigu arrotza egiten. Oraingoan, Guardia Zibilak inolako frogarik gabe ETA euskarazko D ereduan infiltratu dela baieztatzen duen ikerketa filtratu du Madrilgo ultraeskuindar hedabideak erabiliz.

Inork ez daki nork agindu duen ikerketa egitea ezta ikertzeko arrazoiak eta irizpideak zeintzuk izan diren, dakigunarekin edonork erranen luke irakasteko erabiltzen den hizkuntza oinarri bakarra izan dela. Ikerketa txostena ez da argitaratu; segurtasun arrazoiak argudiatuz ezin ditugu ikerketaren nondik norakoak ezagutu; soilik hedabideetan dauden zenbait esaldi, batzuk gainera Nafarroako hezkuntza sistemaren ez ezagupenaren adierazgarriak. Horrela izanik, inork ezin du bere burua defendatu edo gertatua salatu, bitartean Nafarroako Gobernuak bere hezkuntza sistema defendatu beharrean, hezkuntza komunitateari babesa adierazi beharrean bortizki eraso egin ditu D ereduko ikasleak, irakasleak eta familiak.

D eredia zelatatzerakoan, euskaren mundua kriminalizatzen da, berriz ere. Eredua bakarra kriminalizatzen da doktrinamendua praktikatzeko delatzerakoan. Denak balio du, gezurretan aritzea edo irakasleei leporatzea ikasleak manipulatu eta istorioa berridatzi nahi izatea. Bertze behin, irakasleen lana eta profesionaltasuna kolokan jarri da, soilik euskaraz lan egiteagatik, eredu honetan izandako emaitzak ahantziz. LBarcina presidentek, lotsagabeki dio publikoki, ez dela UPNk nahi duen eredia, inposatu egin zaiela, eta eurek saiatu direla frenatzen, atzerritar hizkuntza ikasteko programen bidez.

Prebentzio eta segurtasunaren aitzakiarekin garbiketa ideologiko bat aurrera eramateari onartezina deritzogu; demokrazia garaiko moduak baino inkisizio garaikoak ematen dute jokaera hauek.

Guzti hau oso kezagarritzat jotzen dugu eta udal osoko bilkuran hurrengo akordioa hartzea proposatzen dugu:

1. Berako Udalak bere babesa, elkartasuna eta aitortza adierazten die D ereduko irakasleei eta irmo arbuiatzen du haiek gaizkiletzat erakusteko ahalegin oro.
2. Berako Udalak Nafarroako Gobernuaren D ereduko hezkuntza komunitatearekin izandako jarrera gaitzesten du eta bere izen ona berreskuratzeko ekimenak bultzatzeko eskatzen dio.
3. Berako Udalak Nafarroako Gobernuak premiatzen du atzerritar hizkuntza ikasteko programak ez erabiltzea euskararen normalkuntzaren kontra.

**10.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

**10.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-**

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen** **Quedan enteradas y enterados de los siguientes**

**hauetaz jakinen ganean gelditu dira:**

bandos y resoluciones de Alcaldía:

**1) Bandoak: B29/2013tik B33/2013ra.**

1) Bandos: del B29/2013 al B33/2013.

**2) Ebazpenak: 2013ko azaroaren 8ko 234. ebazpenatik 2013ko abenduaren 30eko 264.era arte eta 2014ko urtarrilaren 8ko 1. ebazpenatik 2014ko irtarrilaren 8ko 3.era arte.**

2) Resoluciones: De la resolución nº 234 de 8 de noviembre de 2013 a la nº 264 de 31 de diciembre de 2013 y de la resolución nº 1 de 8 de enero de 2014 a la nº 3 de 8 de enero de 2014.

*Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hau tratatu dute:*

*Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:*

**11.- AZKEN ATXILOKETEI BURUZKO MOZIOA.**

**11.- MOCIÓN SOBRE LAS ÚLTIMAS DETENCIONES.**

*Alkateak mozioa irakurri ondoren, aho batez, onartu dute honako testua izanik:*

*Tras la lectura de la moción por la Alcaldesa, por unanimidad, la aprueban, siendo el texto el siguiente:*

Joan zen urtarrilaren 8an, Espainiako Entzutegi Nazionalaren aginduz, 8 euskal herritar atxilotu eta ondoren gartzeleratu dituzte. Egun batzuk lehenago, EPPK-k egungo egoera politikoaren gaineko irakurketa egin zuen. Bertan, presoek onartzen zuten gatazka duten ardura eta eragindako kaltea. Hala nola, indarrean dagoen legea onartu eta askatasuna lortzeko bide horiek erabiltzeko konpromisoa agertu zuten.

Eremu anitzetik, kultura zein ideologia politiko desberdineko eragileak, bakea eraikitzeke lanean ari dira, bai eta normalizazio politikoan eta elkarbizitza demokratikoan sakontzeko ere. Euskal gizartea itxaropen aldia bizitzen ari da, eta horrek guztioi arduraz jokatzeari eskatzen digu.

Gauzak horrela, BERAKo Udalak honakoa agertu nahi du:

1.- Guardia Zibilaren operazioan atxilotutako pertsonen askatasuna exijitzen dugu eta beraiei ez ezik, bera lagun eta senitartekoei elkartasuna adierazi nahi diegu.

2.- Guardia Zibilak burututako atxiloketak herri honen gehiengoak nahi duen konponbide prozesuaren kontrako erasotzat jotzen ditugu.

3.- Atxiloketa hauek euskal presoen bitartekarien kontrako eraso izanik, berriz ere euskal presoen eskubide guztiak errespetatzea eskatzen dugu, horretarako lehen bai lehen dispertsioarekin amaitzea ezinbestekoa delarik.

4.- Konponbide prozesua erasotu baino, etengabe askatasun demokratikoak urratzen dituzten salbuespen neurriak eta errepresioa tresnak behin betikoz desagertzea exijitzen dugu.



5.- Berriz ere konponbide demokratiko eta integral baten aldeko gure konpromisoa berretsi nahi dugu.

**12.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BES-  
TE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

**12.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL  
DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA COR-  
PORACIÓN.**

**Ez dira burutu.**

No se producen.

*Honen ondotik, Alkateak zera proposatu du:*

*Finalmente, la Alcaldesa propone lo siguiente:*

*Udalak Lucia Larrañeta herritarra zorion-  
tzea bere 100. urtebetetzeagatik eta Mugaz  
gain hartu duten 2013ko Euskal Herriko  
AntzerkiZale Saria izen horren elkarteak  
emana eta gainontzeko zinegotzi guztiak ados  
agertu dira.*

*Felicitar en nombre del Ayuntamiento a la ve-  
cina Lucía Larrañeta por su 100 aniversario y  
a Mugaz gain por el premio “Euskal Herriko  
AntzerkiZale 2013” concedido por la asocia-  
ción del mismo nombre a lo que el resto de  
concejales y concejales muestran su confor-  
midad.*

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat  
eman du 20:40 etan.**

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levan-  
ta la sesión a las 20:40 horas.

**O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA**  
M<sup>a</sup> Sol M. Taberna Iratzoki

**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**  
Pilar Chueca Intxusta